

Prentsa-oharra

Laser teknologiak patroi fisikoak ordezkatzeko dituzte

- ▶ *IK4-TEKNIKER koordinatu handien bidez neurtzeko makinaren kalibrazioak egiteko ENAC ziurtagiri prozesuren barne dago*
- ▶ *Zentro teknologikoak garatutako sistema Makina-erremintaren Biurteko Azokaren hurrengo edizioan aurkeztuko da*

(Eibar, 2016ko apirilaren 13a).- ISO (Estandarizaziorako Nazioarteko Erakundea) erakundeak 2010. urtean ISO 10360 arau teknikoaren berrikusketan, laser interferometria erabiltzeko aukera gehitu zuen koordinatu bidez neurtzeko makinaren (MMC), dimentsio linealen neurketarako erabiliak, baliozko kalibrazio patroia gisa.

Testuinguru honetan, IK4-TEKNIKER Egiaztatze Erakunde Nazionalaren (ENAC) ziurtagiria lortzeko bidean dago tamaina erdi-handiko (1.500 eta 13.500 mm bitarteko ardatz luzerakoak) MMC-en kalibrazioak egiteko laser tracer teknologia bidez, gaur egungo merkatuak dituen doitasun handiagoko mekanismoak aurkitzeko eta makineriaren geldialdi txikiaren beharrei erantzuteko.

Eskari nabarmena

Espainiar estatuan 1.500 mm baino handiagoko MMC parke garrantzitsua dago, gaur egun patroia fisikoekin kalibratzen dena. Arazo nagusia makinaren kalibrazioan patroia fisiko oso luzeak modu fidagarri eta azkarrean erabiltzeko zailtasunean datza.

IK4-TEKNIKERek laser interferometria sistema bat erabiltzen du, laser tracer izena duena, ETALON AG markakoa, eta haztagailutik hurbil kokatutako islagailua jarraitzeko gai da desplazamendu linealen neurketekin batera. Horrela, gaur egun erabilitako prozesuekin alderatuta bi abantaila lortzen dira:

Alde batetik, kalibrazio prozesu osoan zehar doitasuna mantentzen da maila interferometrikoan, bestetik, makinengeldialdi denbora asko txikitzen da, MMCaren tamaina gorabehera. Neurketa prozesu hau hurrengo Makina-erremintaren Biurteko Azokan aurkeztuko da.

ETALON AG - IK4-TEKNIKER arteko lankidetzak

ETALON AG garrantzia handiko lankidea da IK4-TEKNIKERrek garatutako zerbitzu berri honetan, izan ere metrologia alorrean erreferentzia bat baita eta geometriaren egiaztapenean, monitorizazioan, eta makina-erreminten doikuntzaren hobekuntzan, koordinatu bidez neurtzeko makinetan eta robotetan teknologia berritzailea eskaintzen du.

IK4-TEKNIKER ETALON AGen kolaboratzailea eta Espainiar merkatuan bere banatzaile ofiziala da. Horrek baimentzen dio, alde batetik, geometriaren egiaztapenaren arloko teknologiarik berriena ezagutzea eta izatea; eta bestetik, metrologia industrialeko fabrikatzaile puntakoena denarekin kolaboratzea.

IK4-TEKNIKERi buruz

IK4-TEKNIKERek 30 urtetik gorako esperientzia du teknologia aplikatuan eta teknologia hori enpresara transferitzen, eta espezializazio-maila handia lortu du lau alor handitan (fabrikazio aurreratua, gainazal-ingeniaritza, produktu-ingeniaritza eta IKTak). Horri esker, gaitasuna du bere abangoardiako teknologia bezeroen beharren zerbitzura jartzeko.

Informazio gehiago

////////////////////////////////////

IK4-TEKNIKER | Itziar Cenoz

Itziar.cenoz@tekniker.es | tel.: 943 256 929

////////////////////////////////////

GUK | Javier Urtasun

urtasun@guk.es | tel.: 637 273 728